

Dimako (Bizkaia) elizatearen barrutiko auzuneak, kofradiak eta ermitak

(Neighbourhoods, confraternities and hermitages in the surroundings of the church at Dima (Bizkaia))

Ariznabarreta Zubero, Abel
Laratzu Taldea. 48141 Dima
laratzu@euskalerrria.org

BIBLID [1137-439X (2004), 26; 137-148]

Jaso: 01.06.07
Onartu: 03.01.99

Identitate propiodun izaeraren sentimenduak eta, aldi berean, komunitate sozial eta espiritual bat osatzen duen horrekiko pertenezia-sentimenduak eta bere barnean ezartzen diren auzotasunezko harremanek, sendotzen dute, batez ere, auzotegiaren nortasuna. Bere baitan, osagai esanguratsuak izango dira ermita eta Kofradia izenez ezagutu dugun erakundea, auzotegiaren espazioa administratiboki erakundetzera datorrena, hain zuzen.

Giltza-Hitzak: Auzo. Kofradia. Ermita.

Los sentimientos del carácter de la propia identidad y, al mismo tiempo, los sentimientos de pertenencia hacia lo que constituye una comunidad social y espiritual y las relaciones de vecindad que se establecen dentro de la misma, fortalecen la personalidad de la vecindad. Elementos significativos de la misma serán la ermita y la institución que conocemos por el nombre de Kofradia, la cual justamente viene a institucionalizar administrativamente el espacio de la vecindad.

Palabras Clave: Vecindad. Cofradía. Ermita.

Les sentiments du caractère de la propre identité et, en même temps, les sentiments d'appartenance à ce qui constitue une communauté sociale et spirituelle et les relations de voisinage que s'y établissent, renforcent la personnalité du voisinage. Des éléments significatifs de ce voisinage seront la chapelle et l'institution que nous connaissons sous le nom de kofradia, laquelle, justement, institutionnalise administrativement l'espace du voisinage.

Mots Clés: Voisinage. Confrérie. Chapelle.

1. BIZKAIKO JAURERRIKO BASERRI BIZTANGUNEA

Bizkaiko baserri biztanguneko toki erakunde txikiek, *elizatea* baino txikiagoek, esaterako *auzuneak* edo *auzotegiak*, auzo harremanetako elementuen aberastasun hain handia daukate non gizarte tradizionalen –bestalde guretik denboran behintzat hain urrun ez daudenen– egituraketa eta bilbadurari buruz datu interesgarriak ekar ditzaketen eta, era berean, baita baserrialdeetako eskala txikiko taldeetako gaurko gizarteko harreman sistema jakin batzuk, gizarte balioak, etab ulertzeko ere balio dezaketen, adibidez Arratiako *Haranean* –geografia irizpidea– edo *Merinaldean* –administrazio irizpidea– dagoen Dimakoak (historian zehar *Elizatea* eta gaur mila bat biztanleko *Udalerría* den horretakoak).

Auzuneak, ohituraz finkaturiko harreman multzo bat euren artean mantentzen duten familiak bizi diren etxe talde bat suposatzen du. Azken batean, helburua da *pirinioetako kultura* dei litekeenari berezitasuna ematen dioten beste elementu ekonomiko, izpiritual, ... batzuekin batera, *etxea* eta elkarte erakundeak, gizarte eta ekonomia antolaketaren oinarritzko elementu direnez, aztertzea. Harreman sistema honetan etxearen bi ikusmoldeak uztartzen dira: alde batetik bakarkako ustiaketa unitate denez eta bestetik bere eremu eta baliabideen aprobetxamendu eta erabilerari dagokienez ohitura izaerako arauak eraenduriko elkarte bateko partaide denez. Auzunea benetan indartzen duena, izan, etxearen bigarren dimentsio hau, elkarte hala sozial nola izpiritual bateko partaide delako sentimendua eta bertan ezartzen diren auzo harremanak dira (Echegaray, 1932). Honen barruan, *kofradia* izenez ezagutzen dugun erakundea, hau da, auzotasunaren eremua administrazio mailan egituratzen duen entitatea, eta *ermita* izango dira elementu esanguratsuenak.

Bizkaian auzunea, jatorrizko biztangune lez agertzen zaigu (Ariznabarreta, 1992). Nahiz eta oraindik behar bezala aztertuta egon ez, Bizkaiko baserrialdean, batez ere topografiak alde nabarmenak dituen lekuetan, Arratiako Merinaldeko Zeanurin eta Diman esaterako, elizatea eratu eta formalizatu aurreko biztangune eta lurralde antolaketako modu naturala auzunea izan zela pentsatzeko arrazoiak daude. Esaterako, gerta liteke Dimako Elizatea osatzen duten auzuneak errealitate bat izatea XIV eta XV. mendeetan jadanik, nahiz eta dokumentatuta Lamindaokoaren erreferentzia baino eduki ez (Rios Rodriguez, 1986). Biztangunearen antolaketa-gune hauek demografiaren bilakaera prozesuei eta gizarte eta ekonomia gorabeherei lotuta egon ziren eta, beraz, ez dute finko iraungo denboran zehar, aldatuz joan baino. Bilakaera honen kausa, demografiaren presioa eta administrazioaren eraginkortasuna izan ziren.

XIV eta XV. mendeetan zehar, biztanguneetako erakunde guztiek ezagutuko duten eremuaren banakotasun fenomeno bat ikusiko dugu, batez ere hiriek, euren eremua antolatuta elizateak eta auzuneak euren eremuaren banan-banako mugapena egitera behartzen dituzten elementu direnez, beteko duten zereginak bultzatua izan zena (Bizkaian hiriak XIII eta XIV. mendean sortu ziren). Tes-tuinguru honetan ulertu beharko lirateke Jaurerriko biztangune txiki ezberdinek elizateen kontra planteaturiko auziak (hauxe da Arratiko Merinaldean, batak Dimarekiko eta besteak Zeanurirekiko *parrokia* kategoria zuten Lamindao eta Ipi-

naren kasua), 1551ko maiatzean Gernikan egiteko ziren Batzar Nagusietara joan eta botoa emateko eskubidea eskatu zutenean eta lortu ere lortu zutenean lehen auzialdian, 1553. urteko kontrako behin betiko ebazpena eman arte:

“Los pueblos de Lamíndano, Ipiña, Zumelzu, San Juan de Bedia, San Miguel de Basauri, Zollo, Zarátamo, Aracaldo y Bernagoitia, que todavía podían considerarse como ledanías ó barriadas de otras anteiglesias, trataron por este tiempo de constituirse en repúblicas ó anteiglesias independientes de sus matrices. Eran ya algún tanto abundosas en vecindad, y en la junta general del 26 de Mayo, verificada la elección de los nuevos diputados que habían de formar el regimiento del Señorío (admitidas á ella por el corregidor Tapia), las anteiglesias de la parcialidad oñacina se levantaron en son de protesta, diciendo que eran anteiglesias sufragáneas de otras parroquias” (Labayru, 1968).

Biztangune hauen argudio-ildoa ordea bide honetatik zihoan, beraietako bakoitzean elizate izaeraren funtsezko elementuak bazeudela, hain zuzen: “*abia pila e sacramento e altares e enterrorio e tenian por sí sus fieles regidores como otras anteiglesias del dicho señorío*” (Labayru, 1968). Oraingo honetan (lehena ez zena bestalde, 1549ko hauteskundeetan ere saiatu zirelako) aurrera atera zuten arren, Jaurerriak errekurtsioa aurkeztu zuen biztanguneetako erakundeen, zeintzuei, hala ere, “*elizate*” deitzen zaien, aldekoa izan zen Korrejidorearen erabakiaren kontra eta euren asmoak zapuztuta ikusiko dituzte Madrilen 1553ko otsailaren 23an emandako Autoaren bidez. Auziari amaiera eman zioten azaroaren 27an emandako epai berri batek eta 1554ko urtarrilaren 1ean Valladoliden ebazitako hari zegokion epai betearazleak.

Biztanguneetako erakundeek eremua definitzeko prozesuaren faktore eragile honekin batera, auzuneen morfologian eragina izango duen beste elementu bat, XV. mendearen erdi ingurutik Bizkaiko siderurgia industriaren bultzadarekin batera nabaritzen den eragingarri demografikoa da (Fernández de Pinedo, 1974). XVI. mendeko lehen erdian zehar demografiaren gehikuntza bat nabarituko da Euskal Herrian, baina batez ere Bizkaian (30 b / km²-ko), Nafarroako ahultasun erlatiboa salbu (12 b / km²-ko). Ziklo hedakor honek ez du bere joera aldatuko emende hasierako izurriteak gorabehera, mende bereko azken 30 urteetako epidemien eragina ezagutu arte, zeinek XVII. mendeko beheralditzat jo izan ohi den hartan gauzatuko den demografia ziklo berri bati hasiera eman baitzion.

Aipatu ditugun demografia ahalmenen gehikuntza honek auzuneen mugetatik kanpo, nahiz eta horietatik hur, familia ustiaketa berriak sortzea bultzatuko du eta egituraz auzunearen multzotik banaturiko baserriak sortu ziren arren, ez ziren, hala ere, horregatik auzunetik deslotu, integrazio hori Kofradiaren bidez mantendu baitzuten, hau da: “*auzotasunaren eremua administrazioari dagokionez egituratzen duen erakundearen*” bidez (Arregi, 1983). Bestalde, gorago aipatutako Ipiña eta Lamindaoren ahalegin zapuztuak, kronologiari dagokionez, XVI. mendeko lehen erdiko hedakunde prozesu orokorreakin batera eman ziren; aldi berdintsuan, 1540an hain zuzen, Ubideak bere *parrokia* fundatu zuen, ordura arte izan zen Zeanuriko Elizatetik banatuz. Alabaina uste dugu bidezko dela zehaztea demografia gorakada horrek Arratiako Merinaldearen kasuan izan zitekeen eraginari buruzko alderdi batzuk:

- Lehenengo eta behin XVI. mendearen hasieran, batez ere baserri giroko haran hau Bizkaian biztanle gutxien zeukanetako bat zen, km²-ko 19 biztanleko dentsitatea zeukalako, penintsulako batezbesteko bera baino txikiagoa (20 b / km²-ko).
- Beste alde batetik, nekazaritza eta abeltzaintzako eremuek ez zuten jasan XVII. mendeko krisia hiriguneetakoen intentsitate berdinarekin, mantendu egin zirelako eta inoiz biztanleria gehitu ere, neurri batean artoa nekazaritza produktora egokitzeak izandako eraginari esker.

Beraz, etxe fisikoki isolatuak, nahiz eta administrazioari dagokionez auzunearen parte zirenak, agertzean demografiaren presioak izandako eraginaren logika onartuta, Dima eta Zeanuriko kasuan (data horietan Arratiako Merinaldean jadanik auzuneetan argien egitaraturik dauden bi elizateen kasuan alegia) kome-niko litzateke toponimiari buruzko ikerketekin osotu eta kontrastatzea, etxe kontzeptuaren deskribatzaileekin zerikusian: goikoa, behekoa, goitikoa, errotakoa, olakoa, barria, ohizkoak eta oraindik dirautenak. Kontua litzateke hauen agerpen kronologikoa eta eremu lekupena kontrastatzea eta baita Kofradia erakundearen bidez auzunean daukaten administrazio arloko integrazio maila ere.

XVIII. mendeko hedapen demografikoaren eragina, errazago nabaritzekoa gerta daiteke: historialarien artean ohikoa da, topiko bihurtzeraino, aipatu mendea gizarte dinamismo handiko alditzat jotzea. Bizkaiak hazkunde tasa oso erregularrak, % 0,47 ingurukoak, mantenduko ditu 1704tik 1787ra arteko epealdian, 77.000 biztanletik 115.000ra pasatuz. Kasu honetan baserrialdeek ere hartuko dute parte, Arratiak esate baterako: Haraneko eta bere ingurumari hurreko herriek, hala nola Zeanurik, Ubideak edo Otxandiok, epealdi horretan batak 113.22, besteak 105.89 eta hirugarrenak 102.01eko hazkunde portzentajeak eduki zituzten. Azken bi hauen kasuan, siderurgiarako joera nabaria duten biztanguneak jadanik sortzen diren une beretik, alegia, honako honetan bilatu behar dugu zalantzarik gabe hedapen demografiko horren arrazoa:

“una reactivación de la demanda de productos tales como clavos, herraduras, azadas,..., inexplicable, por otra parte, sin un incremento casi paralelo del número de casas, de carros, del área roturada, en suma” (Fernández de Pinedo, 1974).

Beraz, itxura guztien arabera, Arratiako eskualdeak garapen une horretan izango du parte hartzerik:

“Como elementos más notables de la sociedad y economía arratianas (del XVIII) destacaríamos el crecimiento económico, la polarización social, la compartimentación geográfica, la creciente apertura al mundo exterior y paralelamente, la renovación. Durante el siglo (XVIII) hubo un avance económico y demográfico. Aquél se puede medir en casas, es decir, en unidades de producción; éste, en número de familias” (Ramos Martín, 1987).

Dimako Elizatearen kasuan esan daiteke biztanguneen gaineko eragin hori, auzuneek mendean zehar ezagutu zuten bilakaeran hauteman daitekeela, horie-

tako batzuk banatu eta, ondorioz, euren kopurua XVIII. mendean zehar gehitzean gauzatu zen bilakaeran alegia.

2. ETXEA, AUZUNEA ETA KOFRADIAK DIMAKO ELIZATEAN

Kofradia, auzo baten eremua administrazio mailan egituratzen duen erakundetzat definitu dugu. Beraz, begi-bistakoa da hemen aipatzen ditugun baserrialde motako *kofradia* horiek zerikusi handirik ez dutela, izen berdina ukan arren, Euskal Herrian eman ziren erlijio izaerako edo gremio izaerako beste haiekin, esaterako itsasaldeko herrietako arrantzaleen kofradiekin. Azpimarratu beharreko beste alderdi bat, hau da: *auzune* eta *kofradia* berben artean ez bereiztea edo bereizte hori ezkatzea. Har al daitezke sinonimo bezala? Zein da bi kontzeptuen arteko erlazioa?

Kofradia berba, lurralde bateko administrazio izaerako erakunde denez, kasu batzuetan bera egituratzen duen lurraldearekin berarekin nahastu da. Eta, hortaz, *auzunea* eta *auzotegia* berbak (espainoleko *barrio* eta *barriada* adierazteko erabiltzen ditugun berbak alegia), lurraldeko taldea definitzeko izaera duten berbak hain zuzen, eta *kofradia* berba, administrazio izaerako erakunde izendatzen duena alegia, lurraldeari dagokionez kasu askotan baterakide direnez, elkar ezkutatzerantz heldu dira eta bigarrena (kofradia) inoiz lehenengoa izendatzeko erabili ohi da.

J. A. Zamakolak jada (1818), bere jaioterria izan zen Dimako Elizateari buruz ari denean, era honetan deskribatzen du “*dividida en distritos que hoy llaman “Cofradías” y antes “Auzoteguiac”*”. Gauza bera aurkitzen dugu gorako aipatutako Dimako Elizateko Ordenantzen testuan ere, aipatu elizatea osatzen duten Kofradia edo (sic) auzuneen zerrenda egiten denean; eta berdina gertatzen da XIX. mendean zehar agertuz joango diren (1802, 1828, 1850) elkarren segidako Geografia eta Historiako Hiztegietan ere, errealitate honen aipamena egiten denean batzuek besteenak praktikan kopiatu baino egiten ez dituztelako.

Kofradia batek, elizatearen barrutian geratzen den lurralde-gune bati dagokion entitate administratzaile bezala ulerturik berau, bere harreman eta ordenamendu esparruaren barne hartu eta egitura dezake, bai auzune bakar eta etxe sakabanatu hainbat, bai auzune bat baino gehiago ere. Dimako Elizatearen barrutian denboran zehar izandako kofradien kopuruaren ugaltzeaz hitz egin dugu arestian, XVIII. Mendean zehar eman zena, alegia, kokatuta dagoen eskualdeak ezagutu zuen aurrerapen ekonomiko eta demografiko orokorraren testuinguruan. Badaukagu bilakabide horren jarraipena egiterik:

- 1704: Behar bada, urte horretako sute-gi-kontaketa izango dugu Dima kofradiatan antolatuta zegoenaren lehen aipamen dokumentatua. Bertan sei kofradia aipatzen dira: Bargondia, Arostegieta-Indusi, Olazabal, Oba, Bikarregi eta Lamindano.
- 1793: Iturrizak (1967) mende bukaerako data honetarako Lamindaoko “*parrokia*”z gain beste sei “*auzune*” aipatzen ditu; honako hauexek: Indusi

(Arostegieta honen barruan sartzen duela pentsa dezakegu), Bargondia, Olazabal, *Coba* (sic), Bikarregi eta Azkuenaga.

- 1800: Dimako Elizatearen Udal Ordenantzek, data honetan lehen aldiz idatziz jarriak eta jadanik denboratxo bat elizate honen gobernu erregimenaren ezagutza-iturri bezala aztertzeo aukera izan genituenak, alegia (Ariznabarreta, 1984), bederatziz *“kofradia edo auzunez osaturik”* deskribatzen digute gure elizate hau. Honela, hitzez hitz: *“Que en atención a componerse la referida Anteiglesia de nueve Cofradías o barriadas, que son las de: Bargondia, Olazabal, Indusi, Arosteguieta, Oba de abajo, Oba de arriba, Bicarregui, Lamindano, Inchaurbiscar”*.

Egia esateko azken hauxe dugu datu zehatz gehien eskaini digun iturria, bertan kofradiak sailkaturik etxe guztiak izendaturik agertzen baitira, bakoitzak duen sutegi-eskubide eta guzti. Dokumentu interesgarria, zalantzarik gabe, besteak beste etxe-izenak eurak aztertzeo ere; dena dela, hemen horren guztiaren laburpen bat eskainiko dugu ondoko koadro honetan, darabilgun gaiarekin zeri-kusi zuzena duelakoan:

KOFRADIAK	SUTEGI $\frac{1}{2}$	SUTEGI $\frac{1}{4}$	SUTEGI OSOA	SUTEGIAK GUZTIRA	ETXEAK
BARGONDIA	11	2	38	44	50
OLAZABAL	8	2	14	18 $\frac{1}{2}$	25
AROSTEGIETA	3	1	16	17 $\frac{3}{4}$	21
INDUSI	4	3	13	15 $\frac{3}{4}$	20
LAMINDAO	2	—	10	11	12
OBA GOIKOA	2	—	5	6	8
OBA BEHEKOA	2	—	10	11	12
BIKARREGI	10	2	41	46 $\frac{1}{2}$	53
INTXAURBIZKAR	2	—	13	14	16
				185	217

3. KOFRADIAREN EGINKIZUNAK ETA GOBERNUA

Auzuneak edo auzotegiak, lurraldetasuna definitzen duen kontzeptua direnez, bertan dauden etxe guztiak hartzen ditu; baserri-kofradia, administrazio erakundea denez, aldiz, *sutegia* antzinatek duten etxeek baino ez dute osatzen. Bizkaian araubide juridikoko ezberdintasunek eragina zeukaten zentsuan (Fernández de Pinedo, 1974): *sutegia* Bizkaiko Lur Lauan eta Durangaldeko Merinaldean erabiltzen zen zenbaketa unitate bat zen; hirietan, hiriburuan eta Enkarterrietan, aldiz, Gaztelako irizpideak agintzen du (familia bat, alargun bat: *auzo* bat; alarguntsa bat: auzo erdi, Enkarterrietako kontzeju batzuetan salbu, hauetan alargun bat ere erdia zelako). Beraz, Arratian esaten denean Kofradia *antzinako sutegia* duten etxeek osatzen dutela, kontzeptu hori bat egin liteke antzinatek bizi eta lur landuak dituen etxearekin. Hortaz, *sutegi* berbak (espainoleko *foguera* berbak, alegia) gutxienez errealitate hirukoitza adierazten du: produkzio unitatea,

familia eta etxe unitatea eta zerga eta erakundeetako, kasu honetan, kofradiako partaidetza unitatea (Ramos Martín, 1987).

Kofradia, administrazio izaerako elkarte bezala sortzen da, auzo motako premiei erantzuna emateko beharrianak eraginda. Beraz, ohiturazko izaera duten arauak, usadioak eta ekanduak eraendutako bere antolaketa eta funtzionamendua, elkarte partaidetza guztiek eskatzen duten oreka, hau da, bera baitan darmatzan onura eta betebeharren arteko oreka lortzearen arabera izango dira. Kasu honetan, *antzinako sutegia duten etxeek* era honetako onurak gozatu dituzte, hala nola: Kofradiak berak eduki ditzakeen ondasunen (etxeak, etxaldeak, ...) errentamenduatik errenta hartukizuna eta batez ere auzo ondasunen, mendien bereziki, gozamina: sukalderako eta laberako egurra eta berdin egurrikatza egiteko ere; otea karobiko erregaitzat; ira eta orbela azpigarri-rako, altzariak eta etxeak egiteko zura ateratzea; kareharria, etab. Betebeharren ordea, logikaz, auzo ondasunen gozamenean partaidetza izateak bultzaturik dago: bideen eta ermitaren konponketan laguntzea, auzo lurretan zuhaitzak birlantatzea, azken alderdi honek funtsezko garrantzia duelarik.

Uneoro ari gara sutegidun etxearen gainean berba egiten: aipatu etxe horietako bizilagunek, berdin titularra zein errentadorea izan, euren lankidetzarekin laguntzarekin batera auzo ondasunen gozamenean parte hartzen dute. Beste behin ikusten dugu etxea dela, ez gizabanakoa, gizarte esparruan parte hartzeko eskubidea duena eta gizabanakoak esparru horretan parte hartzen duela etxe bateko partaide den heinean. 1798ko sutegi zerrendak, Dimako Elizateko aipatu Ordenantzetan egituraturik eta bere barruan Kofradiaka bereizirik eranskin gisa berreginak, geroago ere aipatuko dugun Olazabalekoari, esaterako, hamazortzi sutegi eta erdi egiten dituzten hogeita lau etxeko zerrenda ematen dio. Hori gertatzen da XVIII. mendearen aurreko sutegi zerrendek sutegi osodun etxeen eta zatikien (erdi, heren edo laurdenen) artean bereizi egiten zutelako. Aurreantzean, aldiz, Ordenantzon eranskinean bertan gogoratzen denez,

“se advierte para que por razón de esta nueva fogueración no se susciten disputas en lo futuro y haya claridad que el mismo las tiene, a los montes Egurbides de fogueras y demás derechos; la casa que es foguera, es entera, como la que es media, cuarta parte, como igualmente a la partición de cagigos, así en egidos, como en Cofradías, a reparo de caminos vecinales y todo lo demás adherente que se ofrezca, tanto por la utilidad como por carga concejil”.

Kofradiako aginte organo nagusia, Batzarra da. Batzar horretara joateko eskubidea, bera osatzen duten etxeek dute. Normalean, premia bereziko kasuetan salbu, urtean behin biltzen zen, gehienetan Kofradiako ermitaren atarian. Bertan hautatzen ziren urteko karguak eta baita euren jokabidearen irizpideak eta lehentasunak ezartzen ere; era berean kargua uzten zutenek batzar horretan ematen zuten euren jardueraren kontua. Erabakiak gehienetan berbaz hartzen ziren, nahiz eta batzutan liburuetan, erabakien edo *dekretuen* liburuak deritzenetan, hartu; hauetan aprobetxamendu arloen *partikuntzen* aipamena egiten da, hala egurrarenak, nola azpigarriarenak (irenak eta orbelenak).

Aipatu aprobetxamendurako normalean ezartzen ziren aroak, azpigarriko irarako iraila zen eta orbelerako urria, egurrerako, ostera, urtarrila eta otsaila. Ba-

tzarrean, Kofradiarenak diren arbola mozketak, landare mintegi, mendietako landare iminte eta bidegintzaren gaineko erabakiak ere hartzen ziren. Kofradiaren mendietako baso aberastasunaren aprobetxamendu hori, itxura batean, elizateak emandakoa legez hartu ohi da, Dimako Ordenantzetan elizateak egiten duen interpretazioaren arabera behintzat (27. kap.):

“que cada una de estas tienen sus montes que se llaman de Cofradías, para el surtimiento de leñas para cocina, cuyos montes, según tradición inmemorial y lo que resulta de varios documentos, son cedidos por la Anteiglesia en común para dicho surtimiento de casas, que conviene mantener en esta misma comunidad y con la posible prosperidad, los dichos montes de Cofradías, como que su leña es para el preciso surtimiento de cocinas”.

Elizatearen partetik nabaria da izendapen sistemaren eta funtzionamendua-ren kontrola ezartzearen aldeko ahalegina, aspektu hauek guztiak zehatz arautzen ahaleginduz; horrela,

“se capitula que a las dos horas de la tarde del día Domingo siguiente del día de Reyes, de cada año, se juntarán en el salón de dicho Ayuntamiento, los Fieles recién posesionados, los Regidores y escribano de ayuntamiento, los nueve guardamontes de otras tantas Cofradías o Regidores y ratificando sus juramentos, darán cuenta de todas las talas y excesos experimentados durante su año y practicando y asentado esto por diligencia en forma, se procederá al nombramiento de nuevos guardamontes para el año entero en esta forma; los dos Fieles elegirán un vecino de la misma Cofradía y el guardamonte otro, se sortearán los dos y el primero que salga obtendrá dicho empleo y el que le sigue quedará por su segundo”. Cap. 24. “Que conclusa esta elección, los dichos Fieles, los dos Regidores y los dichos nueve guardamontes que acaban de cumplir el año, decretarán (entendiéndose por decreto lo que resuelva la mayoría de estos trece o los que de ellos concurran) lo que así en plantaciones, cría de viveros, evitación de cortes, talas y demás adherentes convenga hacer por el año que entra. (...) Cap. 35. “Que tanto por uno de los Domingos del mes de enero de cada año, como por otro del mes de noviembre que son los tiempos más acomodados en esta Anteiglesia, para tratar de plantaciones de cagigas y aumentos y mejoramiento de montes, se léan en los respectivos Ayuntamientos generales las ordenanzas de montes dispuestas por el Señorío y confirmadas recientemente por S.M. y se tomen las medidas acertadas y prontas para las plantaciones y labores que se deban hacer para aquel año en los montes egidos de la Anteiglesia (...). Que lo mismo se entienda en respectivas Juntas generales de Cofradías, celebradas conforme al capítulo veinticuatro por lo tocante a los montes particulares según y como en todo se previene en dicha ordenanza confirmada por S.M.”

Dimako Elizateko Kofradia ezberdinetan gehien agertzen diren karguak, funtsean bi dira: *Basozaina*, erdaraz “*Montasquero*” eta baita “*Alcalde Montasquero*” edo “*Guardamontes*” besterik gabe eta bestea *Maiordomoa*. Lehenengoak, hurrengo betebeharrak hauen ardura zeukan: batzarrak zuhaitz inausketen eta mozketen gainean hartutako erabakia betearaztekoa, gehiegikeriarik inork egin ez dezan saiaturata edo kasua denean zigorrak jarrita; gorago aipaturiko partikuntzak egitea eta landare iminterako eta bidegintzarako deiak egitea. Kofradia bakoitzeko, lagun bat izendatzen zen kargua betetzeko eta bigarren bat izendatzen zen, beharko balitz, ordezkoa izateko,

“bien entendido que siguiendo la misma costumbre, siempre se elegirán dos personas para Montasqueros, por lo tocante a la Cofradía o barriada de Bicarregui, con respecto a su gran extensión y dos serán también por el mismo modo la elección referida sus segundos”.

Maiordomoak batez ere Kofradiaren eta ermitaren fondoak administratzeko ardurak zeukan; baina, baita, ermitaren mantenimendua ere, kofradiakoei dei egin diezaiekeelarik ermita konpontzeko. Bere ardurak izango da, halaber, ermitaren ondasunak eta mendiak administratzea eta mantentzea ere. Kargu honen hautaketa eta eginkizunak, aipatu Ordenantzek arautzen dituzte (43 eta 44. kap.):

Cap. 43. “Que la elección de dichos Mayordomos de ermitas se cause según costumbre observada hasta aquí a las tres horas de la tarde del día treinta y uno de diciembre de cada año en el nuevo salón de Ayuntamiento que se está construyendo y hasta verificar esto en el cementerio de la parroquia de San Pedro. La elección recaerá en personas vecinadas en esta Anteiglesia de Dima, que vivan sobre sí con un año de anticipación y sean mayores de veintidos años y precisamente han de ser vecinos propietarios o inquilinos que vivan en la misma Cofradía para donde se causare la elección, bien que siendo propietario lo podrá ser aunque viva en otra Cofradía, pero con precisión ha de ser vecino de la Anteiglesia. La elección harán el Fiel del banco de San Pedro, el presbítero rector y el Mayordomo que espira de conformidad y si los tres no se conformaren unánimes, nombrará cada uno el suyo y lo será el que primero salga en suerte, de modo que no conformándose precisamente los tres, se procederá a la suerte. El electo será abonado y tal que nada deba antes a la ermita, cantidad alguna por pequeña que sea”. Cap. 44. “Que las cuentas de los Mayordomos de fábrica de ambas parroquias y todas las ermitas y Cofradías, se dará por el día primero de cada año en dicho salón de Ayuntamiento, según costumbre, dando principio a las nueve horas de la mañana y continuando hasta la conclusión, se recibirán por su orden y con la posible individualidad e integridad y presidirá el Fiel Justicia de San Pablo, en todas y además en las dos parroquias, los respectivos curas decanos, en la de ermitas y Cofradías de Iglesias, los Rectores y en las de montes de Cofradías, los guardamontes, los cuales y si sobre cualquier cuenta o partida se ofreciere asunto judicial conocerá y substanciará en primera instancia con asesor, el Fiel del banco de San Pedro, con apelación a Tribunales Realengos”.

Elizateko mugen barruan XVIII. mendean zehar eman ziren demografia gehikuntzari eta biztanguneen kontzentrazioari esker baserri izaera gutxiagoko multzo txikiak edo *plazak* garatzearekin bat dator, Dimako kasuan behintzat, Elizatearen gobernu araubide osoa idatziz jarri, racionalizatu eta arautzeko interesa; karguak hautatzeko mekanismoak, prozedura judiciala eta kontabilitate idazpena ezartzen, Kofradiaren erabakiak liburuetan erregistratzen, etab saiaturiko dira:

“Para todo lo cual habrá un libro concerniente a los decretos y buen gobierno, para cada una de las nueve Cofradías con toda separación y siempre que entre año se ofreciese tratar, conferenciar o resolver alguna cosa, se juntará para el efecto, aquella Cofradía de cuyo gobierno se trata, en dicho salón de Ayuntamiento o en otro paraje donde los señores Fieles y el Montasquero, o los dos de estos tres tengan por conveniente con atención a la calidad o cordedad del negocio que se trate, solo con que las dichas elecciones y primeros acuerdos siempre que sean en el referido salón y en el día que va señalado”.

Baina aipatu Kofradien funtzionamenduaren errealitateak, bizirik dirauten bitartean, usadioak, ekanduak eta berbazko erabakiak gidaturik egoten segituko du, idatzitako erregistroarako joera gutxiarekin. Karguen hautaketa, tradizioz egiten zen moduan egiten segituko da, hau da: aurretik ezarritako etxez etxeko hurren-kerak txanda zorrotzari jarrai.

4. ERAKUNDEAREN KRISIA

Administrazio erakunde honen gainbehera, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendean zehar eman ziren auzo ondasunen errentagarritasunaren krisiak eta aldi berean lurra pribatu bihurtzeko gogoaren garapenak baldintzaturik egongo da. Dimako Elizateko Kofradiak XX. mendeko lehenengo erdian joango dira aprobetxamendu komuneko lurren banaketa erabakiz. Egiten azkena Olazabalekoa izango da 1951n jada. Kofradia horretako kideek aipatu urteko ekainaren 19an egin zuten batzarraren akta amaitze prozesu horren isla adierazgarria dugu:

“Reunidos en Dima hoy día diez y nueve de Junio de mil novecientos cincuenta y uno la mayoría de los propietarios de la Cofradía de Olazabal se toman los siguientes acuerdos. Primero: Repartir dicha Cofradía de Olazabal en partes iguales a los treinta y cuatro que componen por goce de reparticiones durante más de los treinta años pasados al de la fecha, quedando cada propietario con la parte o partes que le correspondan. Segundo: Abonar en metálico a los propietarios que por fogueras les corresponda más de la parte asignada en el artículo anterior y el valor que le pertenezca por tasación que haga el perito. El abono se efectuará de la cantidad que se reciba del importe de la venta del arbolado que existe actualmente en la Cofradía. Tercero: derribar (antes de efectuar la repartición del terreno) de todo el arbolado existente en la Cofradía, destinando dicha cantidad para repartir en partes iguales a las antedichas treinta y cuatro partes una vez efectuados los pagos de la tramitación del reparto de la repetida Cofradía. (...)”.

Hamasei kidek sinatzen dute akta; prozesua nahiko xumea izan da, baina aldaketa sozio-ekonomiko esanguratsua suposatzen du Kofradiak biltzen duen elkarte txikiaren barruko harreman sisteman: banaketa, azken 30 urteetan partikuntzak gozatzeko eskubidea eduki duten etxeen *ugazaben* artean egin zen. Ugazabak, hemeretzi ziren; eskubide horrekin guztira hogeita hamalau etxe zituzten; kasu gehienetan, hamalau, bakoitzari arlo bat tokatu zitzaion; lauk bi arlo hartu zituzten eta ugazaba bakar bat, Markeserri baten titularrak eta Bizkaitik kanpo bizi zena, hamabi arlorekin geratuko zen (lur osoaren eta Kofradiako baso-etako arbola salmentatik hartutako diru guztiaren % 35,3rekin). Beraz, errenteroak banaketa horretatik kanpo geratu ziren, hau da: Kofradian parte hartzeko eskubidea duen etxe bateko bizilaguna izatearren auzo ondasunak gozatzeko eskubidea ordura arte izan zutenak. Aurrerantzean horietara sarbidea izateko eskubidea eskuratzeko, errentero horiek bizitzeko erabiltzen dituzten etxeen jabeekin dagozkien ekonomia hitzarmenak egin beharko dituzte (gehienetan espezieetan egiten den urteko ordainsaria): *etxearen* eta *une hartan bizi zenaren*, berdin ugazaba zein errentadorearen, eskubidea zena, *gizabanakoaren* eskubidea izatera pasatzen da, nahiz eta jabetza berria hartzeko eskubidea eman dion etxean hain zuzen ere bizi ez.

5. KOFRADIAREN GAIAREN GAINEKO GOGOETA BATZUK

Alde batetik Bizkaiko Historiografian gai honi arreta jarri dioten autore baka-nei, (Vicario, 1901; Arregi, 1976 eta 1983; Lizundia, 1979), eta bestetik Dimako Elizateko Kofradien funtzionamenduaren analisiari kasu eginik, Erakunde honi buruz gogoeta batzuk egitera ausartzen gara:

1. Durangaldeko Merinaldeko *Lur Lauko* elizateetan (“Hiri” kontzeptuari kontrajarria), biztanguneetako administrazio egituraketaren ohizko forma izan da Kofradia.
2. Dima (62,22 km² eta 135 metroren –hirigunea edo plaza– eta 1000 metroen arteko altuerak) eta Zeanuri (67,46 km² eta 180 metroren –plaza– eta 1475 metroen arteko altuerak), bata eta bestea Arratiako Merinaldekoak, bezalako elizate oso zabal eta topografia kontraste nabarmeneta-ko elizateetako biztangune naturaletan administrazio egituraketaren berezko forma izan da Kofradia.
3. Mota honetako Kofradiak Bizkaiko Jaurerriko beste Merinalde batzuetan era badaudela adierazten duten datuak agertzen dira: Uribeko Merinaldean Mungia, Busturiko Merinaldean Kortezubi, Markinako Merinaldean izen berdina daramana.
4. Baserri biztanguneetan baino ematen ez den fenomeno da, baserri biztangunetzat harturik *Lur Lauko* (pribilegiarik gabeko lurretako) elizateak, nahiz eta Mungia, Elorrio eta Markina bezalako kasuak ere aipatu (Arregi, 1983). Mungia kasuan ñabartu beharko litzateke izen berdinarekin batera egon zirela elizate bat eta hiri bat, azken hau 1378. urtean bestearen lurraldean sortua izan zena; Elorriori dagokionez esan behar da Hiri honek bere jurisdikzioaren pean hartu zuela 1630. urtean aipatu Kofradiak kokatzen ziren Etxebarriako San Agustin Elizatea. Azkenez, Markina hiriaren kasuan esaten digute (Mugartegi, 1972, eta Arregik aipatua, 1983) Kofradia hauek “*estaban agregadas voluntariamente a la villa con determinadas condiciones, tales como la de tener un representante suyo en el concejo de la villa*” (“hiriari borondatez eratzikita zeuden baldintza jakin batzuekin, hala nola Hiriko kontzejuan euren ordezkari bat izatea”). Beraz, hitzarmen berezi bat da eta ez administrazio egitura natural bat. Bestalde, kasu hauetatik kanpo ez du zentzu handirik Kofradia bezalako erakunde bat, nagusiki ohiturazkoa dena, hiri agiri baten eta “foru” idatzi baten indarrez beren beregi sortu eta arauturiko Bizkaiko hirien funtzionamendu esparruan egoteak.
5. Ohiturazko izaerako erakunde honek Bizkaiko baserri biztangunearen egi-turaketan bere garrantzia izan du denborari dagokionez erabat zabala izan den aldi historiko baten zehar, indar gehiago edo gutxiagorekin, baina XX. mendean bertan ere bizirik irauteraino eta kasu batzuetan bere funtzionaltasuna birformulatuta.

AIPAMEN BIBLIOGRAFIKOAK

- ARIZNABARRETA, A. (1984) "Dimako Elizatearen gobernamentua XIX. mendeko foru garaian", *Kobie-Etnografía*, 1, Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 143-154. orr.
- ARIZNABARRETA, A. (1992) "Entidades locales menores del hábitat rural de Bizkaia. La Institución de la Cofradía", *I Simposi del Poblament dels Pirineus*, Andorra la Vella, 22-24 d'octubre de 1992.
- ARREGI, G. (1976) "Función de la Cofradía en el municipio de Zeanuri", *Etniker*, 2, Bilbo, 47-55. orr.
- ARREGI, G. (1983) "Funciones de la Cofradía en las Anteiglesias de Bizkaia. Siglos XVIII-XIX", *IX Congreso de Estudios Vascos: Antecedentes próximos de la sociedad vasca actual. Siglos XVIII y XIX*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 353-357.
- ECHEGARAY, B. (1932) "La vecindad. Relaciones que engendra en el País Vasco", *RIEV*, XXXIII, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca (1971ko berrargit.) 4-29, 376-405 eta 546-564. orr.
- FERNANDEZ DE PINEDO, E. (1974) *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco (1100-1850)*, Madrid: Siglo XXI, 9-29 eta 78-100. orr.
- ITURRIZA, J. R. (berrargit. 1967) *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*, Bilbo: Rodríguez Herrero.
- LABAYRU, E. J. (berrargit. 1968) *Historia General del Señorío de Vizcaya*, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.
- LIZUNDIA, J. L. (1978) "La Cofradía, una entidad olvidada en el poblamiento de Vizcaya" *III Simposio sobre las formas del poblamiento en el Señorío de Vizcaya durante la Edad Media*, Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 257-264. orr.
- MONREAL, G. (1974) *Las Instituciones Públicas del Señorío de Vizcaya (Hasta el siglo XVIII)*, Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.
- MUGARTEGI, J.J. (1927) *La Villa de Marquina. Monografía histórica*, Bilbo.
- RAMOS MARTÍN, F. (1987) "Datos sociales del Valle de Arratia en el siglo XVII. Una hipótesis de trabajo", *Ernao*, 4, Bilbo: Universidad de Deusto, 157-195. orr.
- RIOS RODRIGUEZ, M.L. (1986) "El poblamiento rural vizcaino: Anteiglesia, Barriada, Caserío", *Congreso de Estudios Históricos, Vizcaya en la Edad Media*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 275-292. orr.
- VICARIO DE LA PEÑA, N. (1901) *Derecho consuetudinario de Vizcaya*, Madrid.
- ZAMACOLA, J.A. (1818) *Historia de las Naciones Bascas*, Auch.